

BAKOITZAK BERE BIOTZAREN

ETA DAN GUZIAREN ESKEINTZA JESUS-EN BIOTZARI.¹

Eskergabez, charkeriz ta sakrilejioz zure amoreari, ta aldarean zor dizugunari eranzuten diotenen-lagun ez izateagatik, ematen dizut beñ, berriz ta askotan, nere biotz osoa, egiñ ditzakean gauza on guziekiñ. Ni barrenean artzeko, zabaldu dezun zure Biotzean sartzeagatik; ez diot begiratu nai nere buruari; nitzaz azturik nai det bizi, zutzaz oroitzen naizala, ta zu beti maitatzen zaitudala bizitzeagatik. Ez nuke nai Biotz orretatik atera, atera dedin arte gorputzetik nere anima, obeki zu maitatuko zaituen tokian sartzeko. Komunio, meza, erregu ta gauza on guziekiñ irabazten dedan guzia izan bedi, Jesus, zor dizudan zure biotzeko amorearen izenean, ta ikusten ditudan bidegabeen alde. Ondoena deritzazuna egiñ dezakezu danaz; dana, dakizun bezela utzia dago, purgatorioan daudenentzat: izan bedi, bada, dakizunen onerako.

Onzat artu bear didazu, bestela zor ditudan, edo karidadeak eskatzen dituen meza, edo beste zenbait gauza emendik aldareratzeara. Baña orduan-ere zorrak atera, edo karidadeak eskatzen duena eman, ta gelditzen dan guzia, izan bedi zuk nai-dezunerako.

Zurekiñ oraiñ egiten dedan guziagatik nai nukeana da, garbi balekit, zu maitatzeko bear bezela, nere biotza. zuk nai-dezuna, nai nuke egiñ; baña eziñ degiket, erakusten ezpadidazu nola egiñ; ta ikasten dedana egiten laguntzen ez didazula. Errez da zuretzat ori guzia; egizubada, degidan nik ere, zuk nai dezuna. Zurea izango da egiten dedanaren onra: au da nik arkitu nai nukeana. Lagun zakizkit, onetarako artu dedan bidean. Ala maita zaitzatela nerekiñ batean munduan bizi diranak. Amen.

ERREGUCHOA.

Özeñ zorion, Biotz zurean
 IESUS, gordea dagona!
 Ezin diteke Biotz oberik
 Sutzeko amorez gizona.
 Crtu gaitezen Zu maitatutzen,
 Sutu, bai, JESUS, gerona

(1) Aita beneragarri Colonbier-ek askotan egiñ oi zuana.